

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Euskararen inguruko iritzia Nafarroan

Pello Astiz Auzmendi • IHABAR

Aspaldi honetan, Nafarroan euskararen inguruko iritzi franko kaleratzen ari dira. Egia esan, iritzia ematea eta gainontzekook horren berri izatea oso gauza osasungarria da nire ustez. Bizitzako alor ezberdinei buruzko informazioa beharrezkoa da, bestela zerbaiten informazioa duenak ezkutatu edo bere interesako erabil dezake.

Nafarroan, euskararen egoera honela ikusten dut nik: 1986an Euskararen legea ezarri ziguten nafarroir iritzia eskatu gabe. Urte hauetan, batzuentzat legea garatzen joan da eta beste batzuentzat oso gutxi garatu da. Gaur egun, 2001. urtean bizi gara eta oraindik ere nafarroir ez zaigu iritzia eskatzen. Nafar Gobernuak ez da behar bezala ahalegintzen nafarron iritzia jakiteko, eta gure iritzia jakin arren gero ez du kasurik egiten, eta bere iritzia gainean jarri edo inposatzen digu. Nafar Gobernuari gogoratu nahi diot berak sustatutako zenbait ikerketatan (Euskara Nafarroan zertan den, Euskal Herriko Soziolinguistikako inkestan) datu eta iritzi asko dagoela ideia bat egiteko. Aipatutako datuak nahikoak ez badira, eta denon iritzia jakin nahi badu, gehiago saiatu beharko du, agian horrek bitartekoak jartzea eskatuko dio, baina zer!, hain zaila al da beharrezko diru partida bat jartzea eta horrekin beste ikerketa bat egitea? Oinarriak koordinakundeak alor honetan egin duen lanak arestian nioen ikerketa aurrera ateratzeko bideetako bat erakutsi digu. Nire ustez nafarrok euskararen aldekoak gara, baina, agian, beste batzuentzat berriz ere iritzia eskatzea ezinbestekoa da.

Nafarroako zergak nafarron artean ordaintzen ditugu, eta ordainketa hori egiten dugunok eskubide osoa dugu gure iritzi, adostasun edota kexa adierazteko. Honekin batera, Nafar Gobernuari proposatzen diot gaia serio hartzeko, nafarroir kasu egiteko, gure eskubideak bermatu ditzala, bestela nafarrok kexatzen segituko dugu eta.

Beste alde batetik, urtarrilaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean azaldu zen



galdeiozu...

Euskal antzezleak Espainiako telebistetan ari dira. Aurrerapausoa eman dute ala merkatu berri bat zabaldu da euskal antzezleentzat?

Iñaki Arriaga (Elgoibar)

Telebistak, dudarik gabe, lan aukerak zabaldu egin ditu. Eta, hala, aktore gehiago funtzionatzen ari da. Baina herri hau txikia da, eta berehala agortzen dira lan iturriak, horregatik (eta ez da kontu berria) aktoreok lana dagoen bideari jarraitu izan diogu (normala!). Eta hemendik kanpoko telebistek telesailak egiten jarraitzen duten bitartean, aktoreok lana egiteko aukera gehiago izango dugu. Eta aukera onei (eta hori alde aurretik inoiz ezin da asmatu) ezin uko egin, nahiz eta hemen izan, edo han, edo suertatzen den lekuan. Ez da batere txarra izaten medio desberdinetan lan egitea, ezta medio ezberdinak maneiatzen dituztenetan aritzea ere.

Urtarrilaren 15etik aurrera **Eneko Landaburu • mediku higienista** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.



AITZPEA GOENAGA

Antzerkilaria

tan zenbait printzipio juridiko larriki mugatu edota urratzen dira. Besteak beste, gertutasun, lurraldetasun edota errugabetasun presuntzioaren printzipioa.

Josuren kasuan, eta beste hainbat euskal gazteren kasuan, Zigor Zuzenbideak oinarrikotzat dituen printzipio hauek bata bestearen atzetik urratuak izan dira. Dena den, euren (in)komunikabideetan *saltzen* dutena *salduta* ere, Josu nahiko gertutik ezagutze-ko parada dugunok badakigu berau gazte «biolentotzat» eta «terroristatzat» aurkeztu dutenean zeharo erratzen direla. Lezamako Udal Taldetik gure elkartasuna helarazi gura diogu, eta bide batez erabat injustu eta bidegabe deritzogun epaia salatu.

Alzola eta Lakasta

Manu Uribe • DURANGO

Azken hamarkadako ezaugarri bat aukeratu beharko banu, beharbada fribolitaeak, itxurakeriak eta ergelkeriak hartu duten indar ikaragarriaz geratuko nintzateke. Lektutan geratu da La Pollak abesten zuen *Revisitas del corazón* hura! Itsasgora geldiezin honen teoriar abertzale eta ezkertiar diren bazter batzuk ere (*Gara*-ren igandeetako gehigarria, adibidez) ederto kirastu ditu.

Hala ere, euskaltzaleok beti izan dugu zabor horretatik at ibiltzeko aukera, EGUNKARIAK beste ildo batzuk jorratzea nahiago baitu. Bertan idazten dutenen artean, beti izan dut gogoko Juan Kruz Lakasta; haren zutabe eta ipuintxoaren artean bada harribitxi ederrik; mutil perfektuaren bila zebilen neska edo oporretatik zetorren bikotearena, kasu. Arlo soziopolitiko lantzerakoan ere zorroztasuna eta inertiak apurtzeko grina sumatzen nizkion.

Erabateko zaputza igandeko elkarriketa irakurtzen sentitu nuen. *Lo que faltaba* saiorik ikusiena izango da, baina baita espainolena eta inuzenteena ere, eta Lakastak aukera paregabea galdu zuen Durangoko neska estu hartu, eta ETBko euskal irizpiderik eza salatzeke. Horren orde, Maritxalar, merengea eta Rikimartin gora eta behera eta tartean lausengu errazak. Errazegiak.

Bidegabekeriak izen- abizenak dituenen

Igor Urrutikoetxea, Jose Felix Ibarluzea eta Laurentzi Hormaetxe (*Lezamako EHko zinegotziak*)

Euskal Herriak eta era berezi baten euskal gazteria borrokalaria eta konprometituak hamaika arazo jasan izan ditu historian zehar, baina azken aldi honetan eraso horiek indarberritu eta areagotu dira.

Horren adibide garbia da Josu Ginea larribetzu gazteari duela hilabete ezarritako 12 urteko kartzela zigorra, ustez kutxa automatiko bat «erre izanaz» akusatuta. Ez zen inongo frogaz sendorik epaiketari, eta lekuko bakarrak kontraesan ugari izan zituen, bere hasierako testigantza baliogabetu zuenarik, baina edozerk balio du euskal gazte bat kartzelatzeko; konprometitua eta borrokalaria den edozein gazte abertzale izan daiteke muntaia juridiko-politiko-mediatico baten biktima.

Auzitegi Nazionalean eginiko epaikete-

Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen erabilera arautzen Dekretu berria. Hori irakurri ondoren badirudi aldaketa dexte datozela, batez ere eremu mistoan eta, komunikabideetan adierazi dutenez, errepideetako seinalizazio, paper ofizial eta administrazio lanpostuetan bereziki. Horrek denak zer kostu edukiko du? Dekretu honen aurkako helegiteak jartzen badira eta hauei arrazoia ematen badiete, egindako kalteak zeinek ordainduko ditu? Nafarroako zergak ordaintzen dugunok konponduko ditugu ala zorigaitzoko dekretua aurrera atera dutenek ordainduko dute?

Horregatik denagatik, Nafar Gobernuari gogoratu nahi nioke oraindik garaiz dagoela, nafar guztiok egiten dugu Nafarroa, ez agitean dauden bakar batzuek. Bada esaera esaten duena gizakia dela harri berarekin bi aldez oztopatzen den animalia bakarra. Beraz, Nafar Gobernuari eskatzen diot bide horretatik ez segitzeko, Dekretu berria ez aplikatzeko edo bertan behera uzteko, denon onerako izango baita.

montxo

